

Ouya, sistema irekiko kotsola

AURTENGO MAIATZEAN Ouya izeneko kotsola merkaturatzeko asmoa dute. Internautek finantzaturako makina izango da, eta jolasak saretik doan eskuratzeko egongo da.

2012ko uztailan, egitasmoen finantzaziorako Kickstarter gunean, Julie Uhrman Ouyaren sortzaileak ideia aurkeztu eta 950.000 dolar behar zituztela adierazi zuen. 24 ordu eskasetan 2,5 milioi bildu zituzten. Azkenean, 8,5 milioi guztira.

Android sisteman arituko den kotsola Rubik kuboaren tamainakoa izango da. Ouya zerbitzarietara konektatuko da eta emaitza etxeko telebis-

tako monitorean ikusiko da, *streaming* bidezko bideoa izango bailitzan; beraz, Interneteko konexio azkarra beharko da sistema ongi aritzeko. Jolasak egun PCetan erabiltzen den "Free to Play" motakoak izango dira, hau da, oinarritzko jolasa doakoa izango da eta pertsonaia edo ezaugarri erantsiak baino ez dira ordainduko.

Kotsola jada salgai dago eta Internet bidez erreserba daiteke 99 dolar ordainduz. ■



2012an gora egin dute karbono dioxido emisioek

East Anglia (Erresuma Batua) Unibertsitateko ikerlarien arabera, 2012an 35.600 milioi tona karbono dioxido igorri ziren atmosferara, aurreko urtean baino %2,6 gehiago. Txina, AEB, EB eta India dira zerrendaburu, AEBetan eta EBn isurketek behera egin bazuten ere.

ttiki.com/46122

(Gaztelaniaz)

Itsas mailaren igoera bi metrora iritsi daiteke 2100. urterako

Aurrekoa irakurrita, ez da harritzekoa beste hau: NOAA estatubatuar erakundeko ikerlariak egindako azterketaren arabera, 2100. urterako itsas maila hogei zentimetro eta bi metro bitartean igoko da. Oraindik bi faktore ezin dira zehaztu: itsasoetako uren berokuntza eta izotz geruzen urtzea.


ttiki.com/46123

(Gaztelaniaz)

CERNeko azeleragailua atsedean hartzen

2010ETIK ORAIN GUTXI ARTE CERNeko azeleragailuan bilioika talka gertatu direla argitara eman da *Nature* aldizkarian. Hala ere, 5.000 milioi baino ez dira erregistratu. Talka horietatik 60 petaokteto, hau da, 60.000 bilioi datu lortu dute, 80.000 ordenagailu eramangarritako diskoak betetzeko adina.

Gogoratu beharra dugu iazko uztailaren 4an CERNek iragarri zuela Higgsen bosoiarekin bateragarria zen partikula topatu zuela. Baina baieztapenerako itxaron beharko da, une honetan azeleragailua geldirik baitago, eta hala egongo da 2015era arte, mantenu-lanak egin behar dituzte eta. ■



JULIAN HERZOG-CC BY SA



Garuneko edemen arrastoek iraun egiten dute

Gotingako (Alemania) Unibertsitatean, Michael Knauth ikerlariak zuzendutako lantaldeak hainbat urtez aztertu ditu edemak jasan izan dituzten mendizaleen garunak, eta orain arte uste zenaren aurka, frogatu dute haien arrastoak ez direla denborarekin desagertzen.

ttiki.com/46124

(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16